

bidegileak



Felipe Arrese ta Beitia (1841-1906)

Egilea:

ITZIAR URRUTIA

Ikasketak

Felipe Arrese ta Beitia Otxandion jaioren 1841eko maiatzaren hogeita bostean kristau fededun familia apal batean. Aita, Andres Arrese, Otxandioko semea zen eta ama, Tomasa Beitia, gipuzkoarra, Arabako mugan dagoen Marin herrikoa. Gurasoek Jainkoaren bidetik ibiltzen erakutsi zioten gaztetatik.

Arrese ez zen gizon ikasia, lehenengo ikasketak zazpi urte zituela hasi zituen Otxandioko eskolan. Hamahiru urte zituenerako eskola utzi, eta umetatik eskulturarako zaletasuna agertzen zuenez, aroztegian aitari laguntzen zion egurrezko gurutzeak egiten.



Felipe Arrese ta Beitia (1841-1906)

Hamasei urte eta erdi zituenean, Gasteizera joan zen ogibidea ikastera eta bertan Markos Ordozgoiti santugilea maisu izan zuen. Egunez lantegian aritzen zen, gauetz, berriz, marrazketa ikasten zuen. Eskoletara luzaroan joan ez arren, ikasle saiatua zen, eta maisuak maiz saritu ohi zuen. Maisuaren begikoa izateak ikaskide batzuen ezinikusia ekarri zion; hori zela eta, Arresek jaioterrira itzultzeko erabakia hartu zuen, izaeraz bakezalea zenez, ez baitzuen liskarretan ibili nahi. *Bitoria'ko Uria* olerkian Gasteizen lanbidea ikasten ibili zeneko aldia aipatzen du:

Nik bere zuri zor deusut dodan ofizioa,
Ikasi neutsun biziteko lañ irabazten,
O! zenbat esker zor deusudazan gañera,
santu-
Irudi asko deustazulako eragiten

Hamazortzi urte zituela Otxandiora itzuli zen eta lantegia ireki zuen San Martoin. 1865etik aurrera, Donostia, Gasteiz, Oñati, Aramaio, Abadiño, Arantzazu, Iurreta, Urkiola eta beste hainbat herritan ibili zen Otxandioko *Santugiña*, bertako eliz, hilerri eta erai-kinak harrizko eta zurezko aldare eta eskulturekin apaintzen. Otxandioko elizako aldare bi, pulpitua eta koruko aulkiteria berak egin zituen. Zoritxarrez, gutxi dira gaur arte gorde diren lanak, baina bakarren batzuk bere ondorengoek berreskuratu ahal izan dituzte.

Irakasle lanetan ere aritzen zen; Gasteizko Roman Goikoetxea aldaregilea eta Donostiako Isidoro Uribesalgo haren ikasle izan ziren.

Lanbidea umetatik zetorkion euskal poesia eta hizkuntzarako zaletasunarekin bateratzen saiatzen zen, hori dela eta, esan izan da Arresek Euskal Herrian batetik bestera ibilita egin zuen bidea, bide bikoitza izan zela: ogibidea, guraso, emazte eta umeentzat eta kopla edo bertso-bidea, Ama Euskal Herriarentzat.



Arresek tailatua



Arreseren biografia biltzen duen liburua

Ezkontza

Anjela Bengoa Otxandioko alabarekin ezkondu zen 1871n. Elizkizuna Aramaioko Azkoaga auzoan egin zen, Anjela, umezurtza izanik, bertan bizi zelako osaba apaiz batekin. Beharlekutik hurbilago egotearren Otxandioko San Martoira joan ziren bizitzera.

Senar-emazteok sei seme-alaba izan zituzten, baina Purificacion eta Lucio izan ezik, gainontzeko guztiak gazterik hil ziren. 1888an Agur ume olerkia idatzi zuen, zazpi urterekin hil zitzaion Maria Pilartxo alaba kutunaren oroimenez. Arrese Bengoak familiak zuen fede sakonaren erakusgarri dira Maria Pilartxoren azken egunetako berbak: «Zerura joan naiago, osatu baño». Alabaren heriotza zela-eta, 1888ko uztailaren 10ean Antonio Arzakek, *Euskal-Erria* aldizkariko zuzendariak eta Arreseren adiskideak, honako gutun hau idatzi zion:

Arrese maitea: Negarrez irakurri det zure eskutitza; negarrez zure alaba aingeruari donkitu diozun moldaera samurra. !A! .. Zure alaba ez da ill, Arrese maitea, poztu eta begira Zerura; askotan, aurrak lurraren gañean ikusirik, ta lurra zér dan pensaturik, alako tristura illun bat sentitzen det, baña Pilarcho zureak poztutzen nau Birjiña Amaren oñetan ikusten detalako bere aitaren bersoak eskeintzen dizkala!

¡Zorionekoa zu! Nik ez ezagutu arren, esan zakitza au bera zure emazteari, ta biak artu ditzatzute, alde batetik nere pozaren agiria, ta bestetik nere malkoak. Agur biotzetik.

1873an Bigarren karlistaldia piztu zenean, Donostiara joan behar izan zuen. Garai hartako lanaren emaitza da *Instituto Provinciale*-ko eraikinean jartzeko egin zituen euskal gizon ospetsuen irudiak. Donostian ezagutu zuen Jose Manterola *Euskal-Erria* aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria. Manterolak, Arrese ta Beitiaren olerkiak *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu ez ezik, olerki batzuen gaztelerazko itzulpenak ere egin zituen (*Maria orban bagarik sortuari...*). Bien arteko adiskidetasunaren erakusgarri dira Manterola bizi zela Arrese ta Beitiak eskaini zion *Nere erriko ujola* izeneko olerkia, baita hil ondoren idatzi zizkionak ere (*Nere adiskide laztan, Manterolaren eriotzea, Euskal festa onen asmatzalle eta gidari On Jose Manterola zanari koroitzea*).


Otxandiora itzuli ziren 1876an, izan ere, Anjelak birikietako gaitza zuen eta bertako klima osasuntsuagoa zen gaixotasuna sendatzeko. Anjela Bengoa, urteetan Arrese ta Beitiaren olerkiak irakurri, zuzendu eta hobetu zituen, 1894an hil zen. Emaztearen oroimenez sentimenduz beteriko *Anjela, Eriotzea* eta *Illetea* olerkiak idatzi zituen.



Felipe Arrese eta Angela Bengoa Aramaion ezkondu
ziren 1971ko irailaren 21ean

Artean Purificación eta Lucio gaztetxoak zirenez, eta Arresek sarritan etxetik kanpo lanean ibili behar zuenez, seme-alabek amabaten beharra zutela pentsatu zuen inondik ere, eta bigarren ezkondu zen Gabriela Iturrieta Otxandioko alabarekin.

Zahartzaroan bihotzeko gaixotasuna agertu zitzaion, eta lan egiteari utzi behar izan zion. Hil arteko urteak abertzale aberatsen talde batek ematen zion hileroko soldatarekin igarozituen. 1906ko urtarrilaren 16an hil zen Otxandion.



D. JOSÉ MANTEROLA

Jose Manterola, Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariaren sortzailea eta Arrese ta Beitiaren adiskidea

Gizon bihozbera

Arrese ta Beitiaren kanpoko itxuraz eta izaeraz deskripzio zehatza eskaini zigun Arturo Kanpionek *Ama euskeriaren liburu kantaria* liburuari eginiko sarreran. Horren arabera, Arresek baserritar itxura zuen; txikia, gorputz-adar gizenduna eta patxadatsua zen. Lehenengo begiratuan pertsona gogorra eta goibela zirudien; baina berbetan hasten zenean eta gogoa berotzen zitzaionean, itxuraldatu egiten zen. Aurpegia gozotasun xumez betetzen zitzaion. Begi urdinak argitu egiten zitzaizkion, irribarre lasaia zetorkion ahora, eta barneko gizonaren islak azaleratu egiten ziren.

Arrese gizon bihozbera, egiazalea, zintzoa eta aratza zen. Diruak ez zuen arduratzen, bihotz biguna zenez edozeinekin errukitu ohi zen. Herriko umezurtzak etxera eramaten zituen sarritan, jaten emateko. Beste asko jantzi egiten zituen, baita ogibideren bat erakutsi ere.

Aita Onaindiak jasotako gertaeratxo batean argi ageri da Arreseren bihotz-zabaltasuna: negu gogor batean, aroztegian lanean ari zela, eskale bat agertu zitzaion leihotik, frakak urratuta, oinutsik eta alkandoratzat zaku bat jantzita. Kolko biluzia erakutsirik esan zion: «Erruki zakizkit, Arrese». Zer emango eta gorontza eman zion arotz eskuzabalak. Gertakari horren inguruan ez zuen etxean inoiz ezer aipatu, are gehiago, ezkondu artean ez zuen gorontzik berriz jantzi. Uste zuen berak inork ez zekiela eginaren berri; baina beste eskale batek esaten omen zion: «Behin zuk gorontza eman zenion Jesukristo berberari». Arresek, ordea, halakoetan isilarazten zuen.

Herrian oso maitatua zen, edonori laguntzeko prest agertzen zelako beti. Gutunak idazteko, hilburukoak aurrera ateratzeko, ondasunak banatzeko edo beste edozein mesede eskatzeko beragana jotzen zuten.



Harpidetzak arrakasta handia lortu zuen eta guztira 1.875 pezeta bildu zituzten *Ama Euskeriaren Liburu Kantaria* argitaratzeko

Omenaldiak

Omenaldia egin zioten Otxandion 1930eko irailaren 21ean. Goizean meza nagusia egin zen eta Joan Bautista Eguzkitzak sermoia esan zuen. Ondoren hilerrira abiatu ziren bertaratutako guztiak, udal agintariak eta ez-pata-dantzariak buru zirela. Arreseren hilobia lore-sortaz apaindu zuten eta bertan Arresek berak Manterola hil zenean adiskideari idatzitako bertsoak jarri zizkioten:

Il zalako gaur orra tristerik gure sortitza.

Il zan gorputza aurkietan da obipean,

Bere arimak seru goyetan dauka bizitza,

Bere izenak euzkeldun danen biotzean.



Arrese hil zeneko 50 urte bete zirenean Aita Onaindiak atonduetako bilduma. 1987an *Olerki Sorta Bat*



Arrese ta Beitia hil ondoren, Otxandioko plaza «Arrese ta Beitia' tar Piliiparen zeia» izendatu zuten

Ondoren, herriko plazan, *Arrese ta Beitia tar'Piliparen zeia* agertzen zuen plaka erakutsi zuten. Jarraian, Roman Goikoetxea Arreseren ikaslea izan zenak Miguel de Urreta, Esteban de Urkiaga *Lauaxeta*, eta Ariztimuño hizlariak aurkeztu zituen, eta Arresek aitari eginiko omenaldia eskertu zuen. Bazkaldu aurretik ezpata-dantzariak eta bertsolariak aritu ziren, eta bazkalostean Alejandro Gallastegik eta Policarpo Barrenak hitz egin zuten. Arratsaldean, berriz, Otxolua luze eta sakon aritu zen Arrese ta Beitiaz eta berorren bizitzaz. Horren ostean, Lauaxetak eta Miguel Urretak jardun zuten. Miren Arantzazu Barrena neskatilak *santuginaren* gorazarrezko Orixeren *Arrese eta Beitia* olerki sari-tua irakurri zuen, eta ondoren Arreseren beste olerki bat.

*Euskaldun jayo nintean,
Euskalduna aai,
Euskara utzi'k amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
'habite' neugaz beti,
Euskara ill' erkeri
Er dot gura bizi,
Donostian Urriaren 29. an 1891. an
Felipe Arrese ta Beitia*

Zortziko bat olerkia

Felipe Arrese ta Beitia hil zeneko 90. urteurrenean, 1996ko urtarrilaren 16an, Gerediagako Elkarteak omenaldia egin zion Otxandion. Elkarte horrek berak idazlearen argazkia eta *Zortziko bat* olerkia argitaratu zituen. Orduko hartan Anjel Zelaieta idazleak egin zuen olerkariaren bizitza eta lanari buruzko hitzaldia.



Otxandion 1930eko irailaren 21ean Arrese ta Beitiairen omenez ospatutako jaien egitaraua

Arrese eta Beitia

Nik zartaria,
ik burruntzalia,
sutegiko lana
biok erdibana.

Buruan zaukodazan
baizen bizi ta argi
atara gura zeusket
kristau olerkari.

Zeu lez gorputz-lantzaile
tamalez e-naz ni
baiña nire gogaia
or dautsot besteri.

Izotza bazen gogor,
edurra ainbat zuri,
sutegian agorra
dagon baizen gori,
zuri ta nai gorri,
baten otz eta bero,
nok asmatu legike
asmakizun ori?

Edur garbi gogoa,
lei gogor gorputza,
sua ta galda baiño
berogo biotza,

miña leguna dau ta
begia zorrotza,
nor da gizon antzori
ein daiken arotza?
Otxandion edurra,
sutegia berton,
ori lakorik sortu
ete leiken ifion?
Bizkaitar zantzu eta
euskotar ari-on
edertu daigun emen
ainbesteko gizon.

Edur olagizona,
zatoz zu, zatoz lei,
gizon bat gogortzeko
dagizuet gaur dei.
Ni su-gizona banitz
zelan eratu nei
Arresen irudia
guztion ikusgei?

Biztu zaize sugiñak,
or dozue burdin;
ik mutil, auspoari
geratzeke eragin;
ik gertu eik gargara
neurri doi-doiekin,

salda gogor beharra
bertara sartu dein.

Aurpegia ta gorputza
neurritz egizuez;
baiñan biotzarentzat
neurri medarrik ez.
Io ta io langu izue
mila mailu kolpez,
arragoan arduraz
ikerturik urrez.

Txoko bero ortan dagon
maite agerkari,
zein aundi ta zein txikar
azalera ageri.
Biotz orren erdian
itz oneik idatzi.
«Euskera il ezkeru
ez dot gura bizi».

Idatzi barruago
zulatuaz zan ta mun,
ondiño barruago
zerbait itzi euskun.
Bai olerkari, baiña
baita bere euskaldun
baiña guztien gaidik
«euskaldun fededun».

Orixe

Ideologia

Bi karlistaldien artean jaio eta abertzaletasunaren sorrera ezagutu izanak eragin handia izan zuen Arrese ta Beitiaren jarrera politikoan. Hasiera batean karlisten jarraitzaile bazen ere, pentsamoldea aldatuz joan zen.

Arrese ta Beitiaren ikuspegi politikoaren inguruko lehenengo erreferentzia *Revista Euskaran Milla zortzireunda irurogeita amargarren-urteko udan ipinitako buru bidia, ur-etxe edo bañutegi bateko salan kantetako* izenburupean argitaratutako olerkian ageri da. Olerki horretan Arrese foruen eta monarkiaren alde agertzen zen, erregeak foruak ba-

bestuz gero; arazo dinastikoak, berriz, ez zuen garrantzirik otxandiarrarentzat.

Nausigura alde guzti guztiok
Gaitezen arren alkartu,
Ta zuzenbide sendo zintzo bat
Daigun guztiok atondu.
Errege on ta jatorrizko bat
Ipiñi daiogun buru,
Bere legiai ta aginduai
Gero danok obediai.

Zeñi datorkan Erregetza au
Ezin neike erabagi,
Jakinturia bagia nazta
Ez nua esatera ori.
Baña euskaldunok geure foruak

Gorde daiguzala zoli,
Gau eta egun isildu baga
Egingo dot iragarri.
Edozeñ dala Errege jarten,
Ez galdu geure legia,
Jaungoikoagandik ta antxinatik
Dogulako etorria.
Maitatu geure foruak eta
Baita bere euskera,
Berau dalako berbeta gozo,
Eta atsegingarria...

Zornotzako ituna sinatu ondoren, 1872ko maiatzaren 24an, karlisten alderdikoa izateari utzi zion, horren interesa foruzaletasunean baino, arazo dinastikoan zetzala ikusi baitzuen.

[...] Amorebietako konbenioa egin zanean erretirau nintzan karlisten partidutik, eta gueyago beti predikau izan neban bakean egoteko, Foruak galdu gura ezpagenduzan; esan eta egin galdu artean etzirean geratu; alan etorri zireanean zorigaiztoko egunok gure Erriagana nire biotzak mingoztasun asko irunsi ebazan, alderdi bietako jentegaitik, enebalako ikusten bitzuetan soberbia baño; danak egin eben ondo euren gerrea euren miñean; baño nire biotzean ez; eta neure artean esaten neban) ez ete dago euskaldunik euskaldun gauzak maiteago dabezunik erdaldunak baño? aldi artan nik eneban iñor bere ikusten inguru onetan (R. M^a. Azkueri , 1898ko urriaren 2an idatzitako gutuna).



Bizi da ama euskera olerkiaren eskuizkribua, 1898koa

Ama euskeriari

Guda bukatuta, foruak galdurik, Arrese ta Beitiak ez zuen bere inguruan Euskal Herriaren edo euskararen aldeko ageriko mugimendurik antzematen. Egoera hari aurre egiteko, otxandiarrak zerbait egin behar zela-eta, 1879an *Ama euskeriari azken agurrak* olerkia idatzi zuen. Olerki horrek oihartzun handia izan zuen garai hartako euskaltzaleen artean, eta ordura arte lozorroan zeuden asko iratzarri zituen. Ordukoak dira Arzakek Arrese ta Beitiari idatzitako *Azken agurrak gure etsaigoari* eta Jean Duvoisinek batasunari buruz eskatu zizkion olerkiak:

Gero Duvoisin Jaunak eskribidu eustan iminteko beste eresi bat batasunaren gañean eta Euskera bizi zala; eta ipini neban orixe, ta gañera beste bi, *Neguko gau izugarri bat*, eta *Goix zoragarria*.

Garai hartako aldizkarietan ere agertu zen olerki horren inguruko aipamenik ere:



1878tik 1883ra bitartean *Asociación Euskara de Navarra* elkarteak *Revista Euskara* argitaratu zuen. Aldizkari horretan ikusi zuen argia lehenengoz *Ama Euskeriari azken agurrak* olerki ezagunak

Egi ederto apainduak diñoz Arresek Ama Euskereari zuzenduriko azken-agur onetan; baiña ez uste izan gure Euskera laztana ain gaiso ta osakatxa dagoanik. Arrese-ren agur onek azkenekoak barik lenengoak ete direan nago. Azkenekoak, «itxasoak lurtu» ta lurra esereztu daitezanean, izarrak amatau edo itzalieran egingo edo dautsez. Euskera ezta berez ilgo. Euskerea eztau iñok ilgo, euskaldun onik lurrean dagoan artean beintzat. Bizkortuko da? Bai ta uste dan baiño ariñago. Noiz? Urte gitxi barru gure irakurleak ikusiko dabe.

Hala ere, *Ama euskeriari azken agurrak* olerkia argitaratu zenean, Bigarren Karlistaldia amaitu berria zen, eta oraindik egoera politikoa ezegonkorra zen. Hori zela eta, *Ama euskeriari azken agurrak* lehenengoz argitaratu zutenean *Revista Euskaran*, ez ziren auzartu Arturo Kanpionek egindako gaztelaniazko itzulpena euskarazkoaren ondoan jartzen.

Sota, Kanpion eta Iturralderekin batera *Euskalerria* elkarre foruzaleko kide izan zen. Edonola ere, 1896tik aurrera Arana Goiriaren ideologiarekin bat egin zuen. Horren erakusgarri dira 1903ko abenduan *Gure eguzkia amatau da!!* Arana Goiri hil berriari eskainitako olerkia, edota 1905eko San Inazio egunerako, hau da, Durangoko euskaldun Batzokia zabaldu zen egunerako, moldatu zuen *Gora gora Sabino gure izarra bertsozko lana*.



«Menendez y Pelayo'k inoiz esan ei eban Arrese-Beitia-ren olerkianak irarkurtearren, pozik ikasiko eukela euskeraz». Aita Onaindia, 1964

Lore Jokoak

Foruen deuseztapenaren ondorioz euskal kulturak bizi zuen egoera latzari aurre egiteko hainbat euskaldun erdal munduaren nagusitasunaren aurka azaldu zen. Giro horretan, D'Abbadieren ekimena azpimarratu behar da, izan ere, Hegoaldeko egoera politikoaz oharturik, Lore Jokoak Elizondora ekartzeko erabakia hartu zuen 1879an.

Norgehiagoka horien inguruan euskarak susperraldia bizi izan zuen Hegoaldean. Euskal kulturaren inguruko aldizkariak sortu ziren, *Revista Euskara*, *Euskal-Erria*, besteak beste; izan ere,

bertan argitaratzen zituzten Lore Jokoetan sarituak izaten ziren olerkiak.

Arrese ta Beitiak hainbat Lore Jokotan parte hartu zuen, baita sari ugari lortu ere. Horien artean lehenengoa Elizondon jaso zuen *Ama euskeriari azken agurrak* olerkiagatik. Iruñeko *Besteen Aldimaitzac* elkarteak egin zuen 1879 maiatzaren 1ean Hegoaldeko lehenengo euskal jaietarako deialdia. Ospakizunak urte hartako uztailearen 25ean hasi ziren.

1882ko abuztuaren 11tik irailaren 1era Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu zuen *Exposición Provincial de Vizcaya*-n, besteak beste, bizkaieraz idatzitako olerki onena saritzea erabaki zen



Luis de Astigarraga y Ugartek gipuzkeraz egindako hiztegiaren bizkaierazko bertsioa da

Arrese ta Beitia *Ama euskeriari azken agurrak* idazten hasi zenean, olerkia Donostia-ra, Aires *bascongadosetara*, bidaltzeko asmoa zuen; baina handik gutxira Elizondoko Euskal jaien programa agertu eta haraxe igortzea erabaki zuen. 1879ko uztailaren 1 In Duvoisin kapitainak gutun bat idatzi zion Arrese ta Beitiari, eta bertan olerkia irakurri zuela eta eder iritzi ziola esan zion. Gerorako, Nafarroako Elkargoko kideek egindako bileran berretsi zuten Duvoisinen iritzia eta *Euskaldunen gauzik maitena* gaiari zegozkion olerkien artean *Ama euskeriari azken agurrak* saritzeko erabakia hartu zuten.

Elizondoko Lore Jokoen bezperan, Duvoisin kapitainak Bonaparteri aditzera eman zion, bere iritzi, ez zela egokia Elizondoko Lore Jokoen artean lehenengo saria jaso behar zuten

Ama euskeriari azken agurrak olerkia argitaratzea, Hegoaldeko egoera politikoa kontuan hartuta.

Abuztuaren 8an d'Abbadiek gutuna idatzi zion Arrese ta Beitiari. Gutun horretan *Ama euskeriari azken agurrak* olerkia goraiatu zuen eta otxandiarrari zegokion lehenengo saria, hau da, makila eta ontza urrea, bigarren sarituari ematea erabaki zuela adierazi zion. Arreseri, berriz, sari berezia ematea erabaki zuen: 100 pezetako urrezko txanpona.

Hilabete baten buruan Arrese ta Beitiak artean ez zuen Nafarroako Elkargoko kideen jakinarazpen ofiziala jaso; dirudienez, Nafarroak garai hartan bizi zituen arazo politiko- en ondorioz.

1879tik 1899ra bitartean Arreseren olerkiak hamaika aldiz izan ziren sarituak.



Lore- jokoetan jasotako zenbait sari

Elizondo, 1879 *Ama euskeriaren azken agurrak*
Bera, 1880 *Gizonaren zorigatxa eta Euskeldun baten gogoraziñoak*
Donostia, 1880 *Antonio Okendo umant Donostiarraren alabantzak*
Maule, 1880 *Bizi da ama Euskera*
Donostia, 1881 *Kosme Damian Txurruka itxas-gizon umantari dagokion oñ-alkia*
Donostia, 1881 *Eguzkiari*
Irun, 1881 *Jaungoikoa eta fueroak eta Danok bat*
Bilbao, 1882 *Libertadea, baña Gernikako arbolapekoa eta Lauburuagaz laurak bat*
Bilbao, 1882 *Bizkaitar zarrak eta erromatarrak*
Iruñea, 1883 *Baserritar baten kantua*
Markina, 1883 *Jaungoikoaren probidentzia*
Hondarribia, 1883 *Uste ez neban ordu bat eta Nere erriko ujola*
Donostia, 1884 *Arte nagusiko neurria*
Iruñea, 1885 *Antxiñako denporan*
Donostia, 1885 *Jaungoikua eta fueroak*
Arantzazu, 1886 *Kantabriako larrosea. Euskal-erriko patroneari bere koronaziñoako egunean eta Ganboa eta Oñez*
Durango, 1886 *Astarloa asko jakiñari alabantzak eta Gernikako arboleari*
Maule, 1886 *Euskaldun martira sara-tar neskatilla Larraldeko Madalenari.*
Gernika, 1888 *Gure bandera*
Gasteiz, 1888 *Homero euskalduna. Iparragirre-ri kanta*
Iurreta, 1891 *Biargiñ alegere bat*
Arrasate, 1896 *Uri kondaira andiko bat*
Senpere, 1898 *Nekazari doatsua*
Aramaio, 1899 *Euskaldun bioletea. Aramayori goratasuna*

Olerkien gaiak

Euskara eta foru kantuak: Olerki sail honek Arrese ta Beitiaren kantu aberkoiak biltzen ditu. Foru galdu berriei edo ama euskararen heriotzari egindako kanta-gaiek olerkariaren nahigabea agertzen dute; baina badira horien artean euskaltzaleen itxaropena piztu nahi dutenak ere: *Bizi da ama euskera, Neguko gau izugarri bat, Goix eder zoragarri bat*, eta abar.

Lirika kantuak: Sentimenduz beteriko kantuak dira, olerkariaren barne gogo agertzen dute; izadiko elementuei kantatzen die, *Eguzkiari, Ekatzari, Ekatzaren ondoko geraaldiari*; urtaroei, *Uda barriari, Udeari*, hain maite zuen *Donostia* hiriari; hil berriei, *Nere adiskide laztan, Agur ume, Neskatila baten eriotzako agurrak, Neure ama maite zanari, Anjela...* besteak beste.

Gorespen kantuak: Sail honetan pertsonaia itzaltsuen ekintza gogoangarriak eta bertuteak goraiatzen ditu; horien artean daude Antonio Okendo, Kalderon, Kosme Damian Txurruka, Mendiburu, Manterola, Astarloa, Iparragirre, Antonio Trueba, Leon XII.a, Pedro Nobia Salzedo, Jesusen Santa Teresa, Larramendi, Legazpi eta Arana Goiriri egindako kantuak.

Erlizjiozko kantuak: Arrese ta Beitia sinismen handiko gizona zen. Erlizjiozko kantuetan

Ama Birjina bekatu eta orban gabeari, maiztze hileri edo loreen hilari egiten dizkien aipamenek Jainkoaren amari zion debozio sakona agertzen dute.

Alegiak: Gehienak bere eskuz idatzitakoak diren arren, Felix María Samaniegoren zenbait alegi ere badira euskaratuak: *Otsoa, Aixeria eta Tximiño Jueza, Mona bat, Orma-txoria, Artista bat eta laurka, Peru errena eta mutill gaizto bat, Su-gizona ta txakurra, Olloa ta arrautzak...*

Ipuinak: Ironiaz beteriko bertsoak dira, herriko gizon zein emakume traketsei eta asmo txardunei egindakoak, *Tranpea lotsagarri, Patxi aguazilla...* Beste batzuetan eztena politikaren ingurukoa da, *Botozko feria* olerkian, esate baterako.

Irakurgaiak: Gehienak gertaera historikoak eta erlijiozko irakasbideak dira, narrazio, kontakizun edo elkarrizketa moldeetan emanak: *Txomiñ eta Premiñ trabenan bertsoetan, Ama Birjiña Aranzazukoaren laguntasuna...*

Prosazko lanak: Sail honetan gai desberdinei buruzko lanak biltzen dira; erlijio-kondairak, Ama Birjiña Arantzazukoa, historikoak, Uri kondaira andiko bat, ipuinak, Arabar bi Abadinon San Blasez eta Mediku bat eta abade bat.

Arreseren olerkiak bildu zituen
lehenengo liburua



Mendiburu jaunari 1882an
eskainitako olerkia

1933an Purificaci3n eta
Lucio Arrese Bengoak aitaren
erlijio-kantuen bilduma
argitaratu zuten



1902an, *Euskalduna* astekariaren
216 zenbakitik aurrera, bilduma
honen atalka-atalkako edizio
faksimilea argitaratu zen

Garaikideekiko harremana

Arrese ta Beitiak hainbat adiskide izan zituen garai hartako idazle eta euskaltzaleen artean; horien artean ditugu Duovisin kapitaina, Abbadie, Arturo Kanpion, Jose Manterola, R. M^a. Azkue, Arana Goiri, Antonio Arzak, Lopez Alen, Ramon de la Sota, Juan Carlos Guerra, E.S. Dodgson, Etxegarai, Trueba, besteak beste.

Jose Manterola, *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendaria izan zena, Donostian ezagutu zuen. 1880 eta 1882 bitartean gutxienez bost gu-

tun idatzi zizkion donostiarrari. Gutun horietan, oro har, *Euskal-Erria* aldizkariaren harpidetzaz eta Arresek Manterolari bidalitako olerkiez ziharduen.

Euskal-Erria aldizkariaren zuzendaritzan Manterolaren ondorengoa izan zen Antonio Arzak ere adiskide izan zuen; aurreko zuzendariari bezalaxe, berak taxututako olerkiak bidaltzen zizkion aldizkarian argitara zitzan.

Arresek Duovisin kapitainaren hamar gutun jaso zituen gutxienez 1879ko uztailaren 11tik 1883ko uztailaren 9ra. Bien arteko ha-



Arrese ta Beitiaren Manterolari bidalitako gutuna
1882ko martxoaren 26an



R. M^a Azkueren zuzendaritzapeko *Euskalzale* eta *Ibaizabal*
astekariaren orrietan ere maiz agertu izan ziren Arreseren olerkiak

rremana 1879ko Elizondoko Lore Jokoen inguruan mamitu zen. Lehendabiziko gutunean honelaxe aurkeztu zuen bere burua: «Juan-Pedro Duvoisin ethorkiz nafarrak, sortzez Ainhoar Bayonan dagoenak don Felipe de Arrese Ochandiokoari, agur». Gutunaren amaiera aldera, berriz, hauxe zion: «Zuri erakusteko, Jauna, zembat ederresten, miresten eta prezatzen ditudan zure bihotz-jauzi herritarrak, bidaltzen darotzut ene iduri iguzkiz-egina, begira diozozuntzat, adiskide baten arpegiari bezala». Duvoisin kapitainaren iritziz, Arrese ta Beitiaren *Ama euskeriari azken agurrak* euskara zaharrak zuen kantarik ederrera zen. Hala ere, lapurtarraren ustez, euskaldunek ez zezaketen ongi har euskara ama hila zela, eta beste olerki bat idazteko eskatu zion euskaldun guztien arteko batasunaren inguruan; proposamen hori izan zen *Bizi da Ama Euskera* olerkiaren hazia.

Arturo Kanpion nafarrak ere Arreseren euskalduntasuna, foruzaletasuna eta kristautasuna nabarmendu zituen:

Olerkari gorengoa dugu Arrese, baina *euskal* olerkaria gero, eta aberri-mina kantatzen, nik uste, inor baino euskaldunago. Eskuratu bere olerki ederretatik edozein, eta Euskal Herriaren muin gartsua eta azal islatsua bertan aurkituko dituzue. Foruzale da Arrese, eta honek ematen zizkigun eskubideak hilda ikustean, eurok negartzen ditu, malko jario; Jaungoikoa maite du, eta Harengana bihotza jasorik, Haren lege jakintsuak goratzen ditu, Haren eginen osotasuna abestu; gizon ona duzu, sinismen bizikoa, eta erlijiozko ezkutapen handiak gogora dakartza.



Begoña Zearra Arrese Beitiak 1930eko bildumaren edizio faksimilea berrargitaratu zuen aitona hil zeneko 80 urte bete zirenean



Bete-betean Onaindiaren *Olerkiak* bildumari jarraitzen dio, hala ere, aukeraketa lana egitean, edizioaren prestatzaileek alde batera utzi zituzten gazteleratik euskaratutako bertsoak

Resurrección Maria Azkue gaztearen ondoan ageri da Gernikako Batzar-Etxean 1897an. Posta harremana ere izan zuten 1897 eta 1898 urteetan; gutunekin batera Arresek olerkiak bidaltzen zizkion *Euskalzale* aldizkarian argitara zitzan. Filologia ere hizketa gaia zen bien artean; Arresek *erautsi* eta *erago* aditz trinkoen erabilera Bizkaian zabaldua goa zegoela adierazi zion Azkueri, lekeitia-rrak erabili ohi zuten *jardun* aditzaren forma trinkoaren aldean. Era horretako irizpenak eta Arreseren olerki lan eskerga aintzat hartu zituen, zalantzarik gabe, bere *Diccionario Vasco-Español-Franceseko* sarreran, bizkaierarako, beste laguntzaile batzuen artean, Otxandio Arrese ta Beitia aipatzeko.

Ez dakigu Arana Goiriri eta Arreseri inoiz aurrez aurre egotea egokitu zitzaizen, baina,

jakin badakigu Arresek abandoarraren ideologiarekin bat egin zuela, eta Arana Goirik otxandiarraren euskarologia hobesten zuela, garaiko beste batzuenaren aldean. Izan ere, 1902an *Centro Vasco*ren eskariz, Arana Goirik, Azkuek eta Arresek *Pater Nosterra*ren itzulpena egin zuten Lurralde Santuko *Carmelitas Descalzas* erlijiosoek komentura bidaltzeko, bertan zeuden hogeita hamabi hizkuntza desberdinetako itzulpenen ondoan euskarazkoa ere jar zezaten. Azkenean, Azkueren itzulpena aukeratu zuten, nahiz eta Arana Goiriren iritziz Arreserena egokiagoa izan. Nolanahi ere, baliteke Arana Goiriren epai horretan Azkue eta bien arteko desadostasunak eraginik izatea. Hona hemen Arresek egindako *Pater Nosterra*ren itzulpena:

Edizio honetarako egileak eskuizkribuetara eta olerkien lehen edizioetara jo zuten. Laurehun olerkitik gora bildu ziren



Zeruetan zagozan gure Aita,
zure izena santutua izan bedi,
zure agintaritzea gugana etorri bedi,
zelan zeruan alan lurrean zuk gura dozuna
egin bedi.

Egunean eguneango gure ogia gaur emoiguzu,
eta zelan gure zordunai parkatuten
deutseguzan zorrak

alan gureak parkatu egiguzuz,
eta esetsietan jausten ez egiguzu ichi,
baia gachetik aldendu gagizuz.


Amen.



Foruak galdu zireneko urteurrenean Angel Zelaia Felipe Arrese ta Beitiak idatzitako *Kantu errikoen* azterketa semantikoa egin zuen

Bestalde, badirudi filologia gaietan Arrese Azkuerengandik gertuago zegoela. Izan ere, 1901ean ortografia bateratzeko ahaleginetan Hendaian egin zen kongresuan Arrese ta Beitia Centro Vasco ordezkatu zuen lan-taldeko kidea izan zen. Arana Goiriren iritziz, lau kidez osaturiko komisio horretan bi bere euskarologiaren aldekoak ziren, Fabian de Ispizua eta Serafin de Albizuri apaiza, eta beste biek, ordea, Felipe Arresek eta Domingo Agirrek, Azkuerena hobesten zuten.

Euskal Herriaz kanpoko idazleak ere ezagutu zituen. Inoiz Menéndez Pelayoren eta Emilia Pardo Bazanen eskutitzak jaso zituen. Behin, Menendez Pelayok esan omen zuen pozik ikasiko lukeela euskara Arrese olerkari handiaren olerkiak jatorrizko hizkuntzan irakurtzearren. Pardo Bazanen iritziz, Arrese poeta lirikoaren artean onenarikoa zen.



Masusta zugatz bateri olerkia Joaquin Rubi6 y Ors olerkari katalanaren *A una morena* izeneko olerkiaren itzulpena da



Aurrealdean, eserita, R. M^o Azkue eta Felipe Arrese Beitia. Gernikan, 1887ko uztailaren 25ean

G

Itzultzaile

Euskal olerkarien artean oparoenetakoa izan zen Arrese; laurehun olerki baino gehiago idatzi zituen, eta gehienak, Kanpion nafarrari aitortu bezala, bihotzak eraginda idatzi zituen. Jarraian aipatuko ditugunak, berriz, beste autore batzuek gaztelaniaz idatzitako olerkien euskarazko bertzioak dira: *Bernardoa*. *Ronzeballeko batallea*, eta *Bernar-*

do eta *Erroldanen arteko jazarra* (Bernardo Balbuena), *Octava de Santa Teresa de Jesús* (Santa Teresa de Jesus), *Ekandu txarrak alporjetan*, *Mona bat*, *Orma-txoria*, *Otsoa*, *aixeria* eta *tximiño jueza*, *Arrizko burua ta aixeria*, *Peru errena eta mutill gaizto bat*, *Olloa ta arrautzak*, *Su-gizona ta txakurra* (Felix Maria Samaniego), *Masusta zugatz bateri* (Joaquin Rubio y Ors), *Ekatxa* (Jose Zorrilla) eta *Pentsamentua* (P. Calderon de la Barca).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekari*
- *Begoña Zearrari*
- *Koldo Mitxelena Kulturenari*
- *Gerediaga Elkarteari*
- *Jon Urrutiari*
- *Nagore Layunori*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g.b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2181-X (Lan osoarena)
84-457-2182-8

L.G.: BI-2959-04